

ESPEZIALITATEAK ZABALIK
**BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN
ETA MAISU-MAISTREN KIDEGOAN**

Eskabideak aurkezteko epea: Martxoaren 1etik 7ra

69/2024 EBAZPENA, otsailaren 29koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana.

GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Frantsesa, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Grekoa
- Esku-hartze Soziokomunitarioa, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Gaztelania eta Literatura, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Administrazio Kudeaketako Prozesuak, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Komunitatearentzako Zerbitzuak, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin

597 – Maisu - Maistren kidegoa:

- Entzumena eta Hizkuntza, zeinu-hizkuntzaren 2.mailako eskakizunarekin
- Entzumena eta Hizkuntza, zeinu-hizkuntzaren 3.mailako eskakizunarekin

EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

- Alemana
- Filosofia
- Frantsesa
- Geografia eta Historia
- Ingelesa
- Ingelesa, alemanierako C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Ingelesa, frantseseko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Esku-hartze Soziokomunitarioa
- Latina
- Gaztelania eta Literatura
- Musika
- Musika, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Hezkuntza Orientabidea
- Merkataritzako Prozesuak
- Administrazio Kudeaketako Prozesuak
- Komunitatearentzako Zerbitzuak

597 – Maisu-Maistren kidegoa:

- Entzumena eta Hizkuntza

Eskabideak eta agiriak **modu telematikoan bakarrik** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA** ataleko **“Tramitatu”** botoia sakatuta:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Apertura-de-listas-especificas-mediante-incorporacion-periodica-de-aspirantes-en-determinadas-especialidades-e-idiomas-1>

Hor azaltzen diren urratsak bete behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NANaren** edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean, edo Sailari baimena ematea egiaztatzeko, inskripzio-orrian gaitutako laukitxoak markatuta.
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuari.
- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuari xedatutakoarekin bat.
- **Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **expediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinetan agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.**
- **Merezimenduak baloratzeko, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren expediente akademiko ofiziala, osoa eta indarrean dagoena (ziklo guztiei dagokiena), batez besteko nota dokumentu bakar batean jasotzen duena. Espezialitate desberdinetarako titulu desberdinak aurkeztuz gero, expediente akademiko bakoitzerako dokumentu bat aurkeztu beharko da. Atzerrian lortutako titulazioen expediente akademikoari dagokionez, homologatuta egon behar du "atzerriko zentroetan egindako unibertsitate-ikasketen batez besteko notaren baliokidetasunaren aitopenearekin".**

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.